



Arartekoaren 2020R-2250-17 Ebazpena, 2020ko maiatzaren 7koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen dio diru-sarrerak bermatzeko errentaren hileko zenbatekoa mantentzeko ebazpen bat berrikusteko.

Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekora jo zuen eta desadostasuna azaldu zuen berak jarritako berraztertze errekurtsoa ebazten Lanbidek izandako atzerapenarekin. 2017ko martxoaren 16an jarri zuen errekurtsoa, erakunde horrek erabaki zuelako 76,09 eurotan mantentzea diru-sarrerak bermatzeko errentaren (aurrerantzean, DSBE) bere prestazioa.
2. Interesdunak azaldu zuenez, 2015eko apirilaren 20tik urte bereko abenduaren 3ra arte, jabetzan zuen garaje bat alokatuta izan zuen, eta alokairu horren truke 80 euro jasotzen zituen hilean; lehenengo hilabetea salbuespena izan zen, 40 euro kobratu baitzituen. Gaineratu zuenez, egoera hori behar bezala jakinarazi zion Lanbideri, eta erakunde horrek prestazioaren zenbatekoa berregokitu zion, goian adierazitako diru-sarrerak kontuan hartuz; bada, murriztu egin zuen eta 76,09 eurotan finkatu zuen prestazio hori.
3. Hala ere, adierazi zuen egoera hori aldatu egin zela 2015eko abenduan; izan ere, alokairu kontratu hori amaitu egin zen, eta, beraz, 2016ko urtarriletik aurrera, 80 euro gutxiagoko diru-sarrerak izaten hasi zen. Horrez gain, adierazi zuen egoera aldaketa hori Lanbideri jakinarazi ziola, baina Lanbidek ez zuela kontuan izan diru-sarreraren murrizketa hori. Bada, goian adierazi bezala, DSBEren prestazioaren zenbatekoa mantentzea erabaki zuen. Ildo horretatik, adierazi behar da espedientea osatzen duten dokumentuetatik ondorioztatzen dela 2016ko abenduaren 1ean interesdunak Lanbideri aurkeztu zizkiola banku-mugimenduak. Bada, horietatik ondorioztatu daiteke 2016ko urtarrilaren 1az geroztik ez duela jasotzen garajea alokatzearen errenta.
4. Kexa izapidetzeko onartu ostean, Arartekoak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntza eskatu zuen, kexa espedientearen zenbait xehetasun argitze aledra. Zehazki, jakin nahi zuen Lanbidek zergatik ez zuen egin prestazioaren zenbatekoaren berregokitzapena eta zein egunetan eman



zuen erakunde horrek berraztertze errekurtsoren ebazpena, bai eta horren edukia ere.

5. Informazio eskaera horri erantzunez, Lanbide-Enplegu Euskal Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2018ko apirilaren 5eko txosten bat igorri zion erakunde honi, zeinean honakoa adierazten baitzuen:

- *“Ezin da egiaztatu errekurtsogileak hileko dirusarrerarik duenik lursaila alokatzeagatik. 2016/11/25ean, errekurtsogileak azken hilabeteetako banku-mugimenduak aurkeztu zituen, lursailaren alokairuaren dirusarrerarik ez zituela frogatzeko.*
- *Hortaz, DSBE prestazioaren zenbatekoa aldatzea onetsi da. Izan ere, prestazioaren aurreko kalkulua egiteko banku-mugimenduak kontuan hartu baziren, nahikotzat hartu beharko da mugimendu horiek aurkeztu izana zenbatekoa berriro kalkulatzeko. Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/201 O Dekretuaren 41 .b) artikuluan jasota dagoenez, DSBE prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartutako baliabideak aldatzen badira, prestazioaren zenbatekoa ere aldatuko da.*
- *Zenbateko handiagoa jasotzen hasteko datari dagokionez, aldaketa eragin duen gertaeraren dataren hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera jasoko du, horixe adierazten baitu Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 42. artikulua¹. Beraz, errekurtsogileak banku-mugimenduak aurkeztea aldaketa-eragileztat hartzea onartu denez, 2016/12/01etik aurrera eman zaio zenbatekoigoera.*
- *(...)k aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa ez daga gaur egun ebatzita, berrikuspen bat irekita baitu oraindik. Lehenbailehen ebatziko da, eta, lehen aipatutako arrazoiengatik, aintzat hartuko da”.*

6. Hala, Lanbidek, 2018ko apirilaren 21ean, ebazpen bat eman zuen. Horren bidez, kexagilearen prestazioaren hileko zenbatekoa aldatzea erabaki zuen, honako arrazoi honengatik: *“Alokatutako garaje aparkalekuko diru-sarreraren amaiera”*. Ebazpen horren bidez, prestazioa hilean 220,16 eurora igo zioten, eta, horrez gain, atzerakinak aitortu zizkieten interesdunari; zehazki,

¹ Azpimarra gurea da.



427,46 euro, 2017ko abenduaren 1etik 2018ko apirilaren 30era arteko aldiari zegozkionak.

7. Orain arte azaldutakoa ikusita, Arartekoak bigarren kolaborazio eskaera bidali zion. Horren bidez, gainera, bi gairi buruzko zenbait hausnarketa helarazi zizkion. Lehenengoa, eta funtsezkoena, ea zergatik, Lanbidek 2018ko apirilaren 21eko ebazpenean adierazi bazuen prestazioaren zenbatekoa aldatzeko arrazoia zela *“alokatutako garaje plazaren diru-sarreraren amaiera”*, ez zituen aitortzen data horretara arteko atzerapenak, Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 42. artikuluan² xedatutakoa aplikatuz. Gainera, erakunde horri adierazi zion izatekotan diskordantzia bat zegoela zuzendari nagusiak bere txostenean adierazitako ondorioak aitortzeko dataren (2016ko abenduaren 1a) eta 2018ko apirilaren 21eko ebazpenak adierazitakoaren artean (2017ko abenduaren 1a).
8. Aken lankidetzeta-eskaera horri erantzunean, 2019ko azaroaren 19an, Lanbideko-Enplegu Euskal Zerbitzuko zuzendari nagusiak txosten bat igorri dio erakunde honi, zeinean honakoa azaltzen baitu:
 - *“Lanbidek balioetsi duenez, 2016ko abenduaren 1etik aurrera atzerapenak egon dira, baina egun horretatik aurrera ordaindu dira. Zehazki, 2016ko abendutik aurrera 961 ,25 euroko atzerapenak egon direla onartzen da, eta 2018ko maiatzean ordaindu direla”.*
9. Hori ikusita, badirudi azkenik Lanbidek bere jarrera berretsi duela, eta ondorioztatu duela atzerapenak aitortu behar direla interesdunaren diru-sarreraren murrizketa egiaztatu den datatik aurrera, dagozkion banku mugimenduak aurkeztuta, eta ez propioki alokairu kontratua amaitzen den datatik aurrera. Data hori da, *a priori*, Lanbidek 2018ko apirilaren 21eko Ebazpenean adierazten duen moduan, diru-sarreraren murrizketaren arrazoia.

² Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 42. artikuluan (Aldaketak egin ondorengo sortzapena eta ordainketa) honakoa ezarri zuen: *“Prestazioen zenbatekoa aldatu egiten baldin bada, aldaketa hori eragin duen ebazpena argitaratu edo aurreko artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren aldaketa automatikoak egin diren hilabetearen hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik aurrera sortuko da eskuratzeko eskubidea, eta ordaindu ere ordutik aurrera ordainduko da”.*



10. Modu beretsuan, 2018ko maiatzaren 15ean amaitzen da, interesdunak 2017ko martxoaren 16an jarritako berraztertze errekurtsoa.

Azaldutako aurrekarietan oinarrituz, eta beharrezkoak diren egitate nahiz oinarriak daudela iritzita, honako gogoeta hauek egiten dira:

Gogoetak

1. Lanbideko zuzendari nagusiak bere txostenean azaltzen duenez, Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 42. artikulua, *“Sortzapena eta aldaketa”* errubrikapean, honako hau xedatzen du: *“zenbatekoa aldatzen bada, prestazioaren zenbateko berriaren sortzapena eta ordainketa aldaketa hori eragin duen arrazoia gertatu den dataren hurrengo hilabeteko lehen egunetik aurrera egingo dira (...)”*.

Illo horretan, Lanbideko zuzendari nagusiaren iritziz, banku-mugimenduak aurkezteak eragin du prestazioaren zenbatekoa aldatzea; izan ere, mugimendu horietatik ondorioztatzen da kexagilearen diru-sarrerak gutxitu egin direla, eta, beraz, erakunde horrek 2016ko abenduaren 1etik aurrerako atzerakinak aitortzen ditu.

Hala ere, Ararteko honen iritziz, badirudi diru-sarrerak gutxitu izanak eragin duela prestazioaren zenbatekoa aldatzea, eta, hortaz, Lanbidek kexagilearen diru-sarrerak murriztu zirenetik, hau da, 2016ko urtarrilaren 1etik (alokairu-kontratua amaitu eta hurrengo hilabetearen lehenengo egunetik), handitu beharko liokeela prestazioaren zenbatekoa.

Ulertu behar da Lanbidek ez duela aitortzen prestazioaren zenbateko berria eta, egotekotan, atzerapenak jasotzeko eskubidea, diru-sarreraren murrizketa ez delako egiaztatu. Hori ondorioztatzen da Lanbideko zuzendari nagusiaren 2018ko apirilaren 5eko txosteneko bigarren paragrafotik³. Hala ere, behin hori egiaztatuta, badirudi maniak hitzez hitz eskatzen duela murrizketa hori eragin zuen egitatearen uneari lotzeko. Une hori, kasu honetan, alokairu kontratuaren amaiera da.

³ Beraz, DSBEaren zenbatekoa aldatzea erabaki da; izan ere, prestazioaren aurreko kalkulurako banku mugimenduak kontuan hartu baziren, justifikazio nahikotzat hartu beharko da horiek aurkeztea zenbatekoa birkalkulatzeko.

Bestela, arrazoibide juridikoaren logikan oinarrituta, legeak ezartzen du prestazioaren zenbateko berria sortu eta ordainduko dela administrazioak aldaketa eragin duen gertaeraren berri izan eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunean, ez aldaketa hori eragin duen gertaera jazo eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunean eta ez, adierazi den bezala: *“aldaketa eragin duen gertakariaren egunean”*. Demagun kasua kontrakoa dela, hots, kexagilearen diru-sarrerak handitu egin direla. Pentsatzekoa litzateke, ohiko jardunari erreparatuta, Lanbidek DSBEren zenbatekoa murriztea areagotzea gertatutako datarainoko atzeraeraginezko izaerarekin, eta erreklama zitzan, ondorioz, bidegabe jasotzat jotako zenbatekoak.

2. Aurreko gogoetan adierazitakoaren ildotik, gogorarazi behar dizut administrazioa legezkotasun printzipioari lotuta dagoela. Bada, horrekin bat etorritik, botere publikoaren jarduna indarrean dagoen legeriari jarraikiz gauzatu behar da. Espainiako Konstituzioaren 103. artikuluan jasotako printzipio orokor horrek administrazioa jardutera behartzen du, konstituzio aginduz eta legearen eta zuzenbidearen mende jarriz erabat.

Horrenbestez, kontua ez litzateke izango, Lanbideko zuzendari nagusiak 2019ko azaroaren 15eko bere txostenean adierazten duen moduan, Lanbidek *“uste izatea atzerapenak 2016-12-01etik aurrera gertatu direla eta data horretatik aurrera ordaintzen direla”*, baizik eta ea jarduketa hori gauzatzean legegilearen borondatea errespetatu den.

Zehazki, Arartekoaren iritziz, 147/2010 Dekretuaren 42. artikulua irakurrita, ondoriozta daiteke legegilearen borondatea izan balitz prestazioaren zenbatekoa doitzeko ondorioetarako data izatea diru-sarreraren aldaketa banku-mugimenduen bidez egiaztatzeko eguna, hala adieraziko zukeen berariaz.

Edozein kasutan ere, eztabaidaezina dirudiena da alokairu kontratutik eratorritako diru-sarrerek sortzeari buzten diotela dagokion kontratua amaitzean; izan ere, une horretatik aurrera ez dago interesduna dagozkion errentak jasotzeko gaitzen duen inolako titulu juridikorik. Hala, kontratuaren amaierak egiaztatuko luke diru-sarreraren aldaketaren arrazoia.

3. Azkenik, egokia da azpimarratzea espedientean jasotako dokumentazioari erreparatuta, Arartekoak egiaztatu duela Lanbidek atzerapen handia izan duela egindako jarduketetan.



Ildo horretan, Arartekoak egiaztatu du Lanbidek ez zuela ebatzi eta, beraz, ez zuela jakinarazi kexagileak jarritako aukerako berraztertze errekurtsoa urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 124.2. artikulua ezarritako hilabeteko epean.

Esan bezala, Lanbideko zuzendari nagusiak 2018ko maiatzaren 15ean ebatzi zuen kexagileak 2017ko martxoaren 16an aurkeztutako aukerako berraztertze errekurtsoa.

Bestalde, behar beste azaldu da Lanbidek uste duela kexagileak 2016ko abenduaren 1eko datarekin egiaztatu duela bere diru-sarreraren murrizketa, baina Lanbidek ez zuela erabaki, 2018ko apirilaren 21eko ebazpena arte, prestazioaren hileko zenbatekoa igotzea.

Horri buruz, egokia dirudi Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikulua xedatutako herri-administrazio onerako oinarrizko eskubidea aipatzea. Haren arabera, pertsona orok du eskubidea Europar Batasuneko erakunde, organo eta erakundeek haien kontuak modu inpartzialean eta bidezkoan zentzuzko epe baten barnean azter ditzaten.

Halaber, herritarrek administrazio publiko on bat, bere ebazpenak besteak beste arrazoizko epe batean eta atzerapen desegokirik gabe xedatzen dituen, izateko duten oinarrizko eskubidearekiko korrelatiboa da administrazio-prozedurak bizkortasun-printzipioa ezartzeko eskubidea ere; eskubide hori urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 71. artikulua onartzen du, eta administrazio agintariak bere esku dauden espedienteak epe ertain batean ebaztera behartzen ditu.

Horregatik guztiagatik, bat etorri erakunde hau sortu zuen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin, Arartekoak honako gomendio hau eman nahi dio Enplegu eta Gizarte Politika Sailari:

Gomendioa





Arartekoak gomendatzen du aipatutako espedientea berrikusteko eta interesdunari ordaintzeko garajea alokatzeko kontratua amaitu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera dagozkion atzerapenak.

